

# Aita Villasante EUSKALTZAINBURU

Euskaltzaindiak, eta baita euskaldun guztiak ere, euskaltzainburu berria dugu.

Joan zan Uztalean, aurrez erabakia zamez, euskaltzainak bildurik, karguak berriak izan zuten. Isileko botuz, Aita Luis Villasante Euskaltzainburutzat aukeratu zuten. Era berean, Jean Haritschelhar bere ordeko (berrientatua) eta Idazkari berdala ere lebengoa, Juan San Martín hain zuzen.

Hona hemen, leben mailako euskaldun bauetako buruz zenbait jakingarri. Izen ere, jakingarria bai da Euskal Herri oso-rako dugun instituzio bakarraren buruak nortzuk eta zer diran.

Ondorengo xehetasun guztiak, J. San Martinen "Escrítores Euskéricos" etik jasoak dituzu.

## Luis Villasante

Gernikan jaio zan, Martxoak 28 zituela, 1920gn. urtean. Aita Franziskoarraga, Foruan, Arantzazun eta Nafarroako Oliteko ikasia. Teologia Irakasle Arantzazun. Apaiztu ondoren, Comillas-ko Unibertsitatean beste zenbait ikasketa egindakoa.

Idazle bizi, ugari, aberats eta langile porrokatua. Bere artikuluak eta gainontzeko lanak, hor, hemen, edonon aurki ditzakezu, alegia, "Aranzazu", "Anaitasuna", "Gernika", "Egan", "Euzko-gogoa", "Cantabria Franciscana", "Euskera", "Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País", "Gure Herria", "Jakin" etab.

Horrezaz gainera, edozeinbat liburuak egile duzu, hots, "Ars-ko erretorearen erakusaldiak", Aranzazu 1955; "Kataluña gogoetak" (gipuzkeratua), Aranzazu 1958; "Nere izena zan Polentxi", Zarauz 1961; "Aitonaren Uzta" (Gesaltzako Graziano Anduagari jasoa), Zarauz 1961; "Egungentikoxo" (Graziano Anduagari jasotako bertsoak), Zarauz 1963;



L. A. ARANBERRIK idazlio

"Senperen gertatua" (Larzabalen antzerki lana gipuzkeraz), Donostia 1964; "Kristau Fedearen Sustraiak. Jainkoa", Aranzazu 1962; "Euskal Gramatika llabur eta Idazleen pusketa autatuak", Bilbao 1959; "Crestomatía de autores vascos" Aita I. Omaetxebarriaren "Euskera" liburuan argitaratua, Zarauz 1959; "Bertsu Bilduma", (Gesaltzako G. Anduagari jasotako bertsoak), Donostia 1965; "Kristau Fedearen Sustraiak. Jesukristo", Aranzazu 1969.

Gazteleraez ere baditu zenbait lan, guzietan euskal-herriari buruzko gaiak aipatzeko dituelarik: "Historia de la Literatura Vasca" Bilbao 1961; "Angeles Sorazu" (liburu bi), Bilbao 1950-51; "San Martín de la Ascensión Loinaz", Beasain 1962; "Voces Vascongadas Diferenciales" (A Añabarren hitzegia ezagutuaraziz), Bilbao 1963; "Santa María de Aránzazu", Donostia 1964; "Gero" (Axularren lanaren bostgarren argitaraldia, gazteleraezko itzulpenarekin), Bartzelona 1964; "Vascuence" (Gran Encyclopédia del Mundo. 21'gn. tomoa, España - Literatura), 1967.

## Juan San Martín

Eibarren jaioa, 1922'garrenean. Ekainak 23 zituela. Poeta lez "Otsalar" izenordea erabili ohi du. Asko eta bere buru eta meritorik ikasia. Euskaltzaina, Euskaltzaindiko Idazkari.

Idazle jori eta ugaria. Herrikoia, periodista kutsuduna, berezko ikaragarria duena. Literatura idazlia esezik, ahozko literatura, historia, arkitektura, etnología eta beste zenbait euskal gai esazkutzen ditu. Astekalari amorratua. Bere artikuluak nun-nahi argitaratuak dituzu, esate baterako, "Euzko-gogoa", "Egan", "Euskera", "Munibe", "Anuario de Euso-Folklore", "Zeruko Argia", "Jakin", "Olerti", "Pyrenaica", "Anaitasuna", "Príncipe de Viana", baita gure "Elbar" eta "Kezka" aldizkarietan ere, etab.

Lau liburu ditu euskeraz idaztiak: "Mogel, bere bizitza ta lanak", Zarautz 1959; "Zirikadak", Zarautz 1960; "Etenkadak", Zarautz 1965; eta "Uhin Berri" (gaur eguneko poeta berrien biografia eta beren lan hautatuak) Donostia 1969. Horrezaz gainera, "Euskeraren inguruak" deritzon saizkera bat du (Euskal Elerti 69 liburuan argitaratua) Donostia 1969, eta hiru itzulpen, "Zaldun Bixia" (Le Cavalier Bizarre) Michel Ghelderoderen antzerki lana, Donostia 1985; "Sinerako liburua" (Libre de Sinerai) Salvador Espriuen poemak, Donostia 1986, eta "Kantak eta Poemak" B. Brechtenak, zenbaitzuk "Olerti"-n argitaratuak 1966garrenetik aurrera.

Gazteleraez lan bi ditu, alegia, "Estudio etnográfico del valle de Urraial Alto (Navarra)", Luis Peña Santillanoren laguntzarekin, Donostia 1966, eta "De temas históricos de Elbar" publikazioa, eta beste bi argitaratzeko bidean, "Seis poetas vascos" bi hiskuntzak, eta "Monografía Histórica de Elbar".

1964garren urtean, Bayonako Euskal Idazkaritzak eman ohi duen "Lauxaxeta" saria erabazia du.

## JEAN HARITSCHELHAR

Baxe-nabarreko Baigorri sortua, 1923'go Maiatzaren 13'an. Letras irakasle Burdeos-ko Unibertsitatean. Bere ikasketak, Toulouseko Unibertsitatean eta Paris-ko Sorbonnen egin zituen. Euskaltzaina, Lehendakari ordeko eta Bayonako "Musée Basque" zuzendarri.

Bere artikuluak eta gainontzeko lanak edozeinbat aldizkaritan banatuak dira. Hots, "Boletín de la R. S. V. de Amigos del País", "GureHerria", "Bulletin du Musée Basque", "Herraria", "Egan" etab.

Liburu bat du idatzia: "Mashifi Larralde - Bordachuri, Le poète galérien" Bayona 1963. Orain, Etxahun, bertsolari ospetsua zanaren biografia eta frantses itzulpena gertatzen dihardu.